


BERRIGARA

9. zenbakia

Jardun elkartea, Bergara

1991, Otsailak 15


Banatzaille baten buruhausteak



Joaquín Guillén:
30 urte eta gero
jubilatuta



Karnabalak 91:
Umore ona nagusi
gure kaleetan



Mikel Askasibar:
Larunbatean
Zarautzen
atxilotua

VECTRA

Besteek desioak besterik topatzen
ez dituztenean zuk
errealitate finkoak
aurkitzen dituzu.

BEREHALAKO
ENTREGA



TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Guipuzkoa)

Erakusketa ARRASATEN: Loramendi. 2
Tfnoa: 79 05 86

DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI
GARAIrako kontzesionaria

Denda-sare Ofizialak

OPEL 
Esperientziagatik hobeak

Nahikari

Mahasterreka. 20
Teléfono, 76 57 71
20570 BERGARA

Carmen Gárate

Plastikoak eta narruzko gauzak

Bidekurutzeta Tfnoa: 76 13 23
BERGARA

ERREKI

ERRETEGIA

TXITXARRO ETA SAIHESKI JANA
ASTEBUKAERETAN

Fraiskozuri Enparantza
Tfnoa: 76 38 51 BERGARA




**LASA
JATETXEA**

Bkurutzeta 36, Tfnoa: 76 10 55 - 76 20 29 BERGARA

**Euskalduna
Taberna**

OSINTXU



**EUSKARAREN ERABILERA
INDARTZEKO ELKARTEA**

* Euskaraz irakurri
* Euskaraz erosi

* Euskal kultura gozatu
*

*** EUSKARAZ BIZI**

**DENA EGIN DAITEKE EUSKARAZ
EGIN ZAITEZ BAZKIDE!**

ERROTALDE JAUREGIA Tfnoa: 76 03 97

MABER GIMNASIA-ETXEA

Kulturismoa
Mantenimendu gimnasia eta zuzenketazkoa
Edozein kirol egiteko pisu-sistema egokiak
Sasoian egoteko behar dituzun makina eta pisu mota guztiak
URTE ASKOTAKO ESPERIENTZIA!
Zuzendaritza: MARTIN BERROYA EGAÑA
(Euskadiko kulturismo txapelduna)

Koldo Elizalde 16, Behea Tfnoa: 76 56 17 BERGARA

BONOFOTOA

BERRIGARA

Jardun Elkartea

1991, otsailak 15



M. A. Elkorbereibar



Igor Agirrezabal

Inoiz baino erantzun gehiago jaso genituen gure hirugarren **BONOFOTOAN**, eta zozketa egin ondoren, saria Angiozar aldera joan zen, Igor Agirrezabalen eskuetara, hain zuzen.

Erraz jarri genion Igorri, gainera, argazkia Angiozar aldeko San Bartolome ermitari zegokion eta.

Zorionak!

Ezagutzen al duzu argazkiko baserria?


Izena: _____ Abizena: _____ Tfonoa: _____

Moztu paper hau eta ekarri astebete baino lehen: **BERRIGARA**

Errotalde Jauregia
20.570 Bergara

Oharra: Asmatzailerik azalduko ez balitz, saria hurrengo **BONOFOTO**rako gordeko litzateke, **FOTOPOTEAN**

GIARTZU



GIMNASIOA

BONI LASKURAIN 3, ETXABEA

Tfnoa: 76 35 71

BERGARA

1. ABIZENA

2. ABIZENA

IZENA

HELBIDEA

TELEFONOA

BANKETXEA

KONTU-ZENBAKIA

JARDUN

EUSKARAREN ERABILERA
INDARTZEKO ELKARTEA

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

Deitu 76 03 97 telefonora edo
ekarri Errotalde Jauregira.

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea
Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara
Tfnoa: 760397

Laguntzailea: Bergarako Udala

Zuzendaria:

Miguel Angel Elkorobereibar

Erredakzioa: Jon Andueza

Maketazioa:

Edume Arenaza. Jon Andueza

Publizitatea eta harpidetzak:

Ignazio Irigoien. Edume Arenaza
Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua: Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola eta Juan
Martin Elexpuru

Kolaboratzaileak: J. Oregi, A.

Urzelai, Mariipi Laskurain, Silvia Sanz,
Ainhoa Leta, Jon A. Bengoa, Mikel
Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel
Elkorobereibar, Josune Iñarra eta
Xabier Aranburu, Aitziber Aretxaga
eta Ainhoa Bikuña

Argazki laborategia: I. G. Landa, A.
Gallastegi, B. Cantero, M. Leturia, K.
Retolaza, J.A. Eguren, J.I. Millan, J.
Aguayo, R. Vicente, J. Tabares, J. A.
Jauregi eta Kifu

Komikia eta marrazkiek Josu Okina
eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofati)

Banaketa arduraduna:

Txantxangorri Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 2.000 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

BERRIGARA ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta eri-
tzien erantzunkizunik.



15 OSTIRALA

- **Zinea:** "El poder de un Dios", 10.30etan.
- **Tren museoa:** Martxoaren 3ra arte aurkituko duzue zabalik Kultur Etxean Valentziako Llopis familiak muntatutako ferrokarrilen historiari buruzko erakusketa. Besteak beste, Alemaniako *Bonn* eta *Baden-Baden* hirietako maketa liluragarriak, eta argazki bilduma aurkituko duzue bertan.
- **Antzerkia:** Mariaren Lagundiako aretoan, 8etan, *Tantaka* taldeak *Kontuz maite zaitut* antzezlan musikalak eskainiko du.
- **Goardiako farmazia:** Guallar, San Antonion.

16 LARUNBATA

- **Zinea:** "Dura de matar", 5etan eta 7.30etan eta 10.30etan.
- **Pilota partiduak:** Frontoian, 4.30etan hasita, honako neurketa hauek ikusteko aukera: Arteaga-Etxenagusia/ Etxaniz-Aldazabal II; Salaberria-Errandonea/ Unanue-

Zezeaga; eta Ansola-Mendia/ Iribarren-Unsain.

- **Futbitoak:** Kiroldegian, goizeko 9etan hasita, kuadrila arteko txapelketako partiduak.
- **Arrasaten:** Amaia antzokian, 10etan, *Bederen 1* antzerki taldeak *Jacques eta nagusia* komeria eskainiko du.
- **Goardiako farmazia:** Egunez: Estella, Matxiategin Gaez: Corcuera (Arrasaten).

17 IGANDEA

- **Zinea:** "El poder de un Dios", 5etan, 7.30etan eta 10.15etan.
- **Futbitoak:** Kiroldegian, goizeko 9etan hasita, kuadrila arteko txapelketako partiduak.
- **Dantzaldia:** Plazan, 6.30etan hasita, *Korkoil* taldeak alaitutako dantzaldia.
- **Goardiako farmazia:** Egunez: Estella, Matxiategin Gaez: Amezua (Arrasaten).

18 ASTELEHENA

- **Zinea:** "El poder de un Dios", 7.30etan.
- **Goardiako farmazia:** Egunez: Mozos, San Pedron Gaez: Ruiz (Arrasaten).

19 ASTEARTEA

- **Goardiako farmazia:** Egunez: Camacho, Bidekur. Gaez: Morales (Arrasaten).

20 ASTEAZKENA

- **Goardiako farmazia:** Egunez: Puy, Barrenkalen Gaez: Azkoaga (Arrasaten).

21 OSTEGUNA

- **Zine Kluba:** 7.30etan, "La vida es un lago no tranquilo" filmearen emanaldia. Novedades aretoan.
- **Goardiako farmazia:** Egunez: Guallar, San Anto. Gaez: Español (Arrasaten).

Aukeran...

Pilota Partiduak:
Larunbatean, frontoian,
besteak beste Etxaniz
eta Zezeaga
bergararrak, edota
Etxenagusia, Salaberria,
Errandonea, Unanue
etab. ikusteko aukera.

KIZKUR

ILEAPAINDEGIA

Bolu 51 Tfnoa: 76 50 32 BERGARA

UXUKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 51 62
BERGARA



Tfnoa: 76 25 99

edengai
**LAMINA, MOLDURA
 ETA OLEOAK.**
 BIDEKURUTZETA 38
 BERGARA Tfnoa: 76 31 03

Zatoia
 Boutique
 BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14

HALTZARI
 FAGOR ALTZARIEN BANATZAILEA
 SUKALDERAKO ALTZARIAK
 BOLU 24 Tfnoa: 76 30 57
 BERGARA

**Aldoka
 Maldoka**
 Taberna
 KRUZ GALLASTEGI
 BERGARA

LETE
 BOLDOKAK
 Kataide Pol/Ind. 14. Pab.
 Tfnoa: 79 23 83 ARRASATE
 BERGARA Tfnoa: 76 12 24
 IURRETA Tfnoa: (94) 6 81 76 19



**Sellu eta Diru Bildumazaleen
 Elkartearen oharra:**

Sellu eta diru bildumazaleen Elkar-
 teak bere batzarretara gonbidatu nahi
 zaitu.

Ostegunetan biltzen gara, 8etatik
 aurrera Kultur Etxeko bigarren solairu-
 an.

Mota guztietako bildumen trukeak
 egiten ditugu. Jakin ere badakigu jende
 askok izaten duela halako gauza bitxiak
 batzen joateko ohitura, eta dei hau eurei
 zuzendua dago batipat.

Etorri Kultur Etxera. Hemen bildu-
 mak egiteko materialeak ditugu, eta baita
 laguntza emateko prest dauden pertsona
 prestuak ere.

Esan beharra dago momentuz lagun
 gutxi garela, baina gogo handia dugu
 talde zabalago bat osatzeko.


Animatu zaitezte, beraz, eta jaso gure
 agurrik beroena laister elkartuko garen
 itxaropenaz.

ZORIONAK BERRIGARAKOEI:

Astero- astero jasotzen dut *Berri-
 gara* etxeko buzoian, eta zorionak eman
 nahi dizkizuet astekaria osatzen duzue-
 noi, ideia ederra iruditzen zaidalako he-
 rriko gertakizunen berri euskara hutsean
 ematea. Gustoz irakurtzen da, gainera,
 nahiz eta momentuz mehe xamar geldi-
 tzen den. Imajinatzen dut, dena den,
 denboraren poderioz atal berriak gehi-
 tzen joango zaretela, astekari borobila
 lortzeko bidean. Hala opa dizuet behin-
 tzat!

Lerro hauek aprobetxatu nahi ditut,
 bide batez buruan daukadan proposamen
 bat zuoi luzatzeko. Zergatik ez duzue
Berrigara paper birziklatuan argitara-
 tzen?

A. Olano



• ERITETXEAK	
Osasun etxea	76 10 82
Larrialdiak	76 12 94
Arrasateko ospitalea	79 53 00
• GURUTZE GORRIA	
Bergara	76 55 76
• DYA	
Antzuola	76 62 91
• ANBULANTZIAK	
Bergaran	76 13 59
Gipuzkoako anbulan.	45 87 44
• SUHILTAILEAK	
Zubillagan	78 28 00

• POLIZIA	
Udaltzaingoa	76 14 69
Ertzaintza	76 53 40
• GARRAIOAK	
P.E.S.A.	76 16 46
Taxiak	76 19 50
• HIRUGARREN ADINA	
Mizpirualde	76 13 68
Aitonak	76 21 40
• BESTELAKO ZERBITZUAK	
Udaletxea	76 39 42
Epaitegia	76 14 72
Kiroldegia	76 56 41
Igerilekuak	76 20 51
Kultur Etxea	76 44 46
IMI	76 55 49



Poliziak Mikel Askasibar zauritu eta atxilotu

Joan den larunbatean Poliziak Zarautzen egindako operazioan, beste batzuren artean Mikel Askasibar bergarra ere atxilotua izan zen. Operazioa eguerdiko hamabi terdiak inguruan hasi zen, poliziak Andoni Cabello atxilotu zuenean Zarautzeko *Eguzki* tabernan. Andoni Cabellori *Zigordia* kaleko etxebizitza bateko giltzak kendu zizkieten. Hara joan zirenean, tiroketa bat egon omen zen GEO eta ustez ETako kideak diren Mikel Askasibar eta Errezileko Maria Josefa Uzkudunen artean. Askasibar besoan eta buruan zauritu zuten balaz, eta Gipuzkoako Hospitalean ingresatu. Oraindik ere bertan daukate. Tiroketan, polizia bat ere zaurituta suertatu zen. Mikeli, *kosta* komandoko partaide izatea leporatzen zaio.



✓ Protesta ugari herrian

Zarautzeko gertakizunen berri zabaldu bezain laister hasi ziren protesta ekintzak herrian. Larunbatean, 400 lagun inguru manifestatu ziren. Igande goizaldean, berriz, ezezagun batzuk lehergailuz erasotu zuten BBVren egoitza, eta honek su hartu zuen. Kaltea neurri haundikoa izan zen, batez ere deuseztatuta gelditu zen banketxean. Igande arratsaldean, kaleko taberna gehienek itxi egin zuten, eta 800 lagun inguru bildu ziren manifestaldian. Amnistiaren aldeko Gestorek mozio bat aurkeztu zuten ostegunean Udaleko Plenoan, gertatutakoak gogor salatuz. Eta aipatu, azkenik, Udaleko Enpresa Komiteak ere gogor salatu duelagertatutakoa.




✓ "Aska"

Mikelek 28 urte ditu. Kuadrilan "Aska" gaitzizenaz ezagutzen dute. Lanbide Heziketa Eskolan ikasi zuen, eta duela hiru urte arte Udaleko langile izan genuen kale-garbiketa brigadan. Deportivo Taldean ere jardun zuen, pilota sailaren arduradun moduan.

Tren erakusketa ikusgarria

Atzo bertan hasi, eta martxoaren 3ra arte aurkituko duzue zabalik Kultur Etxean ferrokarrilen historiari buruzko erakusketa. Valentziako Llopis familia dugu muntaiaren arduradun. Makinatxo bat urte daramatzate mundu hau jorratzen, eta oraingoan Alemaniako *Baden-Baden* eta *Born* hirietako ferrokarrilen maketa zoragarriak ekarri dizkigute, argazki bilduma zabal batekin osatuta. Benetan. Ez galdu Kultur Etxetik bueltatxo bat emateko aukera. Ikuskizun aparta dugu maketak martxan ikustea, detailerik txikiena ere ederto lotu dute!



BERGARA BOLTSAK


- Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
- Denetarikoa konfekzio industrialak
- Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1,

Tfnoa: 76 57 69

Faxe: (943) 76 55 66

BERGARA



✓ **Elkarteentzako dirulaguntzak**

Bergarako Udalak onartu berri ditu aurrerantzean Kultura Elkarteei dirulaguntzak emateko arauak. Eskariak edozein Elkartek luza ditzake: bai kultura, bai kirola, festa, gizarte edota gazteen munduan lanean diharduen edozein Elkartek.


Azpirarragarria da laguntza lortu nahi dutenek lehentasuna eman beharko diotela euskarari euren egitarau, publizitate eta emanaldi publikoak burutzeko orduan.

Udalak onartutako dirulaguntzak, bestalde, bi epetan emango dira. Bigarrena jaso aurretik, gainera, Elkartek bakoitzak ordura arte egindako guztiaren balantzea aurkeztu beharko du. Era berean, edozergatik Udalak une konkretu baten balantze hori eskatzen badu, Elkartek prest egon beharko dira erantzuteko. Esan dezagun, azkenik, dirulaguntzak emateko orduan Udalak herritarren parte hartzea bultzatzen duten Elkartek sarituko dituela, bai eta helburu argiak azaltzen dituztenak, eta bai urte osoko etengabeko lana erakusten duten taldeak ere.

✓ **Literatur lehiaketa**

Apirilaren 6ra arte luzatuko da Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatutako Literatur Lehiaketan lanak aurkezteko epea. Adinaren arabera sei kategoria ezberdin sarituko dira.

Informazioa, 763942an



✓ **Txontxongilo talde berria**

Arazo-Marrazo txontxongilo taldea zazpi lagunek osatzen dute (argazkian hiru falta dira), eta hilabete batzuk daramatzate Udalak Zabalotegin utzitako lokalean. Asteartean, *Mundu Ikusteziña*, euren obra eskaini zuten.



AGIRREBEÑA

Oinetakoak
Erropa denda
Lenzeria

Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29 BERGARA

TOSHARE
ILEAPAINDEGI MISTOA
ESTILISTA.

Artekale 29, Behea
Tfnoa: 76 29 70
BERGARA

IZOZKIAK
IZOZKIAK
IZOZKIAK

Barrenkale 10, Tfnoa: 76 18 22




✓ **Alex Duran**

Īgandean herriko plazan egindako mozorro lehiaketan, argazkian parakaidista jantzita ikusten duzuen Alex Duranek irabazi zuen 20.000 pzta.ko saria.

Karnabal, karnabal...

✓ **Xamatx dantza taldea**

Ez ziren frantsesak igande iluntzean Bergaran Luzaideko dantzak eskaini zituztenak. Herriko Xamatx dantza taldearen, baina itxuraz ondo mozorrotuta irten ziren.



✓ **Alaitasunez gainezka**

Asteartean, umore ona nagusitu zen Bergarako kaleetan. Zalantza barik, neska-mutikoak izan genituen ospakizunaren protagonista nagusiak. Ezkerreko argazkian, hain zuzen, arratsaldean egindako kalejira ikusten duzue.

Kalean ponpoxo-ponpoxo agertzeak, aurrez egindako lana eskatzen du. Eskumako argazkian, emakume taldea azaltzen zaigu, azken orduko detaile txikienez ere zeharo arduratuta. Ezagutzen al dituzue?



TOKI-EDER

Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi Tfnoa: 765184 BERGARA

Sotiveni

ETXEA

Gertatutako jangaiak eta erregimenekoak

Zurradero 2, Tfnoa: 76 58 83

Beheko

Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

Joaquín Guillen

Garaiz erretiratzea garaipen bat denean

Bergarar gehienok ezagutzen duzue Joaquín Guillén, azken hogeitamar urteotan herribarruko autobusen arduraduna.

Jubilatu berri da. Ez dugu gehiago urbanoarekin gora eta behera ikusiko.

Bere *habitat* naturalean egin genion elkarrizketa hau, autobus txikiaren barruan, hain zuzen. Eta sinpatiko aurkitu genuen oso, makina bat barre egin genuen bere izateko modu bitxiarekin....

- Badajozen jaioa. Nola heldu zinen Bergarara?

- Gezurra dirudien arren, gazte eta guapo heldu nintzen. Historia luzea da. Artean ni ejerzitoan nengoen kabo bezala. Nazkatu egin nintzen, ordea, urteak eman ondoren ez nindutelako mailaz igotzen. Egun baten inpreso batzuk bidali zizkiguten, destinu zibila nahi izanez gero bertan izena emateko. Nik denetik eskatu nuen, baita Pancorbon enterratzaile izateko ere. Inpresoetan Bergara ere agertzen zen, *Fajero* lanak egiteko bi pertsona eskatzen ziren, eta nik aurrera, hori ere jarri egin

nuen.

Handik egunetara, hara non datorren konpañiako karteroa. *Guillén, onartu egin dizute destinoa. A, bai, nora? Bergarara. Osti, eta non dago hori? Zuk jakingo duzu, Guillén, zuk eskatu zenuen. Ez ba, nik katxondeoan jarri nuen leku hori, zer arraio egin behar dut han? Hemen Fajero moduan zozela jartzen du. Eta zer demontre da fajero?? Gillen, ez gero neri adarrrik jo, hori zuk jakin beharko zenuke...*

Koartel guztia dantzan jarri nuen. Inork ez zekien zer zen *Fajeroa*, eta barre egiten zidaten.



Hain urduri nengoen, koartelek hurbil bizi zen sasiletrau bat ikustera joatea erabaki nuen, ea berak pista- ren bat ematen zidan. Berak baietz, segituan konponduko zuela. Begiratzen du liburut- tan, eta hara non bidaltzen di- dan morroi bat errekaurekin: "*Guillén, que dice Don Luis, que Fajeros son unos señores que salen en las procesiones con una faja y un estandarte*".

Kristo, imaginatu ere ez nuen egiten nire burua Berga- ran, prozesioetan gora eta be- hera, estandartea gainean nue- la...zelako ikara!!


Beste behin, Márquez ize- neko kapitain bat hurbildu zi- tzaidan. *Zer Gillen, ba al da- kizu zer den Fajeroa? Ez hori- xe, Kapitaina, eta dagoeneko ez dakit nora jo ere, laister bialduko naute, eta zer egin behar dut nik han goian? Tira gizon, lasai, etorri nerekin eta berehala jakingo duzu zer dan Fajeroaren lana...*

Sartu gara despatxoan, eta *Espasa* batean bilatzen hasi. Handik gutxira: *Hementxe,*

Guillen. "Fajero: Faja de niño pequeño". Eta parentesi arte- an: "*El que hace fajas*".

Jode. Konpañia guztia pa- rrez lehertzen. "*Guillén, ca- brón, a Bergara a hacer fajas pa las tlas...*".

Azkenean, honutz etor- tzeko agindua jaso, eta tren



hartu nuen, urduri. Bergarara apirileko egun batean heldu nintzela gogoratzen dut. Euria ziharduen goian-behean, izu- garrizko dilubioa. Lehenengo ikusi nuen tipoa *Pepito Cas- taño* ezaguna izan zen, eta berari galdetu nion ea zer zen *Fajero* bat. Eta haretzek azaldu zidan ardaurazagiak furgone- tan sartu eta hortik zehar bana- tzen ibiltzea zela nire lana.

Zelako ilusioa, txo! Poza- ren pozez, lehenengo gaua Hotel Lasan pasatu nuen. Eta



ONENA

TINDATEGIA

Barrenkale 29 BERGARA

ORTZI

ERRETEGIA

ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68

lehenengo lan-egunean, lehenengo ardo zaragia hartu eta nahigabeen lehertu egin nuen. Hura ikuskizuna, hura!! Plaza guztia ardoz beteta...

- Udaltzaina ere izan zinen...

- Bai. Hura zen *pluriempleoa*. Udaltzaina izateaz gain, herriko anbulantziaren arduradun, zaborrak batzeko kamioiaren arduradun, eta kamioiaren atzekaldean erantsita-ko erremolkean haragia eramaten nuen herrian zehar bantzeko!

- Nolatan okurritu zitzaizun urbanoa martxan jartzea?

- Udaltzain lanetan nenbilela, han egoten nintzen San Antonion. Eta goizeko seiretan, langileak bizikletan fabrikara. Gero beste talde bat. Eguerdian jende mardoa bizikletan, fabrikatik bueltan. Kontuak ateratzen hasi: demontre, nik autobusa jartzen badiet, seguro bizikleta utziko dutela, eta pezetabat, eta beste pezeta bat...

Baimena eskatu nion Udalarari, eta 1960an eman zidaten.

Bale. Baimena bai; baina nondik atera autobusa erosteko dirua? Bazter guztietan eskatu, baina ez zen inor fidatzen. Azkenean Martin Barrutik eman zidan, eta Zaragozara joan ginen autobus bila. 1962ko urtarilaren 18an irten zen lehen aldiz urbanoa Bergarako kaleetara. Eta zer zen hura!! Mundu guztia urbanoan bueltak ematen. Ailegatzen zen igandea, eta mutikoen xoxik ere ez karamelotan, dena autobusean gastatzen zuten: Zapa-



terikuara, Zabalara... Begira, kobratzaile bat kontratatu behar izan nuen jendea azkarrago atenditzeko... negozioa primeran zebilela eta, segituan ekarri genuen beste autobus bat Zaragozatik!

- 30 urte eta gero, Bergarako batxe guztiak ezagutuko dituzu, ezta?

- Den denak.

- Zuk ez zenuen jubilatzerik nahi...

- Ez horixe!! Hogeitauerteko mutikoa bezala nago. Eta gainera ni ez naiz Martokuan pasian ibiltzeko jaio, hil egingo nintzateke!

Dena den, ez dut beste erremediorik izan. Tarifa 45 pztara igo zenetik lau atso etortzen zitzaizkidan bakarrik, eta gastuak pagatzeko ere ez nuen ateratzen.

Gaur egun mundu guztia kotxean dsbil. Laurehun langile fabrikara, ba laurehun kotxe! Horrek izorratu egin gaitu!

Mila aldiz eskatu diot Udalarari Zerbitzua bere kargu

hartzeko, toki guztietan gertatzen den bezala, baina jaramonik ere ez! Bi urterako karneta daukadan arren, ez dut jarraitzeko modurik ikusi!

- Langile autonomoa izanda, gainera, ez zara oso egoera onean geldituko...

- 50.000 pzt. Maruja eta nerretzat. Ze arraio egin behar dugu mixeria horrekin?

Tristeia ere bada, bizitza guztia lanean, zazpi egun astean, ondo ala ez hain ondo, baina bergararrei zerbitzua ematen... eta horren truke lau xoxa hartzeko!! Mekaguen...

- Zer eskatuko zenieke herritarrei?

- Barkatzeko nire malaletxea. Azken finean hitz zatarrak besterik ez ziren.

- Eta etorkizunari?

- Diru pixkat, ea loteria tokatzen zaidan edo... Tarragonara joan nahiko nuke, hainbeste maite dudan Sabinosako hondartzan biluzik bainatzera.

Ametsa gauzatuko ote zaizu!

Anekdotak bikainak

Behin, Cordobako mutil bat leuzemiaz jota zegoela eta hiltzera hara eramane behar genuen. Anbulantzian joan ginen mutila, bere sendide bat, Don Nikomedes, Iñaki praktikantea eta ni.

Burgos inguruan mutila hil, baina aurrera egin genuen, eta Cordobara eramane. Hiletetara gelditu ginen. Alde egiterakoan, senitartekoen opariz bete zituguten anbulantzia, eta tartean, indioilar mardoa.

Cordoba hiriburutik pasatzerakoan kotxea gelditu nuen, kanpera batzuk erosi asmoz. Don Nikomedes bertan gelditu zen zain. Halako traste zaharra barrutik ere ezin zabaldu!

Total, liatu egin ginen, eta ordu pare bat hantxe ibili. Kotxera bueltatu eta ostia, zelako kiratsa heltzen zitzaigun...

Imajinatu, 50 gradu egiten zituen. Atea zabaldu genuenean, indioilar guztiak ittota, eta Don Nikomedes gorri-gorri, izerdi patsetan, ulu baten: *Zabaldu, arren!! Itotzen ari naiz!! Indioilar hauen usaia jasan ezina da!!*

Jo, ia ia asfixiaz hil zitzaigun. Zelako faena! Seguru ez duela ahaztu. Esker-rak umore ona nagusitu zela, eta pentsa, Iñaki eta biok postutxo bat jarri genuen, indioilarrak 75 pztan saltzeko. Zelako arrakasta!! Denak saldu genituen, eta Don Nikomedesek ere bat erosi zigun! Hilabete eman zuten gero indioilarra jaten!!

Zuhaitzi
AFARIAK: Asteburuetan
Aste barruan enkarguz
Espaloia 6 Tfnoa: 76 59 22 BERGARA

LAZKANO
oinetakoak
BARRENKALE 15
BERGARA Tfnoa: 76 25 03

LEZARRA
MERZERIA - LENZERIA
D. Irala 5 Tfnoa: 76 25 69
BERGARA

GIPUZKOA
HORTZ-KLINIKA

- . ENDODONTZIA
- . HORTZ EZARKETA
- . HORTZ - ESTETIKA
- . PROTESI FIJOAK ETA MUGIKORRAK
- . ZIRUGIA
- . ORTODONTZIA
- . ODONTOLOGIA OROKORRA

Marisa Porta Peña Dok.a
Gabriela Porta Peña Dok.a
Pablo José Mármol Dok.

ODONTOLOGOAK

ARRASATE ZUMARRAGA
Iturriotz 7 bis- behea Soraluze,1
Tfnoa: 79 73 88 Tfnoa: 72 46 47

BERGARA
Simon Arrieta 3
Tfnoa: 76 38 54

Gustatzen al zaizu San Balentin eguna?



Imanol Bikuña
21 urte

Ez dakit zer esan...noizean behin egin izan dut opariren bat, baina ez diot aparteko garrantziarik ematen.



Ainhoa Karazo
16 urte

Ondo dagoela uste dut. Erregalu bat egin eta kitto!



Pilar Monton
81 urte

Neretzat, beste edozein bezalako eguna da. Maitasuna egunero eskaini beharko genukeelako, eta ez San Balentin egunean bakarrik.



Antonio Martin
44 urte.

Ondo darella uste dut. Urte batzuetan ospatu izan dut, erregaluak eta hori, baina ez beti. Segun eta ze bolada ematen didan.

**ETXE-
-AUNDI**

Negoio bazkariak
E z k o n t z a k
B a n k e t e a k

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

**INFERNUKUA
TABERNA**

Mahasterreka 23 Tfnoa: 76 18 49

YAZKI

UME Irizar 3 Tfnoa: 76 16 54
GAZTE Ibargarai 8 Tfnoa: 76 54 73

 **GAZTELY S.A.**

BURDINDEGIA

Mintegi 1 Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 **BERGARA**


BOLINTXO
Kirola egiteko behar den guztia

Ibargarai 10, Tfnoa: 76 38 32
BERGARA



• • • • •
Mari Karmen Gallastegi, 45 urteko bergarra, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Kontseilaria izango dugu aurrerantzean, bere alderdi politikoa den Eusko Alkartasunak hala erabaki eta gero. Mari Karmenek Valladolideko Unibertsitatean burutu zituen Ekonomia ikasketak, eta *masterra* London School of Economics delakoan eskuratu zuen. Euskal Herriko Unibertsitatean jardun du lanean; Bizkaiko campuseko errektore-orde lehenik, eta Sarrikoko fakultatean Teoria Ekonomikoaren Katedraduna gero.

Beheko argazkian, pasa den astean egindako Eusko Jaurlaritzaren aurkezpena ikusten dugu. Atzeko lerroan **Mari Karmen Gallastegi** agertzen da.



Hamalau gizon ez inguratuta, **Jaurlaritza** berrian bera izango bait dugu emakume bakarra. Bergarako herriak, beraz, badu ordezkari bat Euskal Gobernuan, eta guk zortetik onena opa diogu etorkizunean beteko duen karguan.

• • • • •
San Martin Agirre eskola publikoko 4. mailakoek gogor ekin diote antzerkigintzari azken boladan.

Irakasleen laguntzaz, *lehenengo oporrak* izeneko lana prestatu zuten 10 neska-mutikoren artean.

Duela gutxi Bergarako ikastetxeetan eskaini dute euren lana. Eta ikusteko aukera izan zutenen eritziz, ondo baino hobeto kunplitu zuten.



Zertan dihardute ba?

GORETI ANDRINUA

26urteko bergarra, sei hilabeterako kontratatu berri du Udalak administrari lanpostua betetzeko. Goretik Deustun burutu zituen Zuzenbide ikasketak.



ARANTZAZU NARBAIZA

40 urte, *Kilometroak 91* antolatzeko liberatu gisa aukeratu du Ikastolak. Talde ezberdinen koordinazioaz eta administrazio lanetaz arduratuko da. 18 urte daramatza Bergarako ikastolan, eta une honetan eskolaurreko neska-mutikoekin dihardu.



ARITZETA ABESBATZA

Aste Santuan Holandara joateko aukera aztertzen ari dira, bertan hainbat saio eman asmoz.



ETXAGI JATETXEA

Afariak-Bataioak
 Jaunartzeak
 Eguneko menua
 Gosariak-Bazkariak

Mahasterreka 8 Tfnoa: 76 53 12 BERGARA

LONBIDE OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA

Umorean

Lan gura ez zen alper bat geldiepean zegoen.

Ustekabean sortu zitzaion ariketa. Zezen-plaza berria egiten ari ziren lekuan, hain zuzen.

Buzo-jantzia eman ziotenean, joan zen kargudunaren aurrera eta aurkeztu esanaz:

- Egunon, jauna!

- Zer egunon eta zer

pollas -erantzun zotsan zakar kargudunak-
Ekarri morteiroa!

- Hemen duzu.

- Ladriloak...!,

morteiro gehiago! Ekarri galga!

- Hemen duzu.

Ordu bi eskas zezaman lantokian oso neke gogorrean, arnasaldi bat hartzeko astirik gabe. Kentzen du buzoa eta hor doa ihesian korrika.

- Eh, hi, nora hoa? -
deitzen dio kargudunak.

- Arratsalderako

sarrera bila noa. Martxa honetan ordubete barru gertu izango da inaguratzeko eta.

Arratsaldeko lauretan ezkondu ziren bi neska-mutil eleizan. Ordubete



baino lehen ezkonberri gizonetzkoa amaren etxera bihurtu zen bera bakarrik. Amak galdetu zion semeari.

- Zer egiten duk hemen?

- Ama, zerbait harrigarria gertatu zait. Nere Mari Loli oraindik birjina dagoela. Zuri kontu ematera nator utzi egin behar dudala esanaz.

- Bejondeikela seme.

Oso ondo egin duk. Bestek nahi ez duen emakumerik ezingo duk hik hartu.

Antonio Urzelai

Eusko Ikaskuntzaren V. Batzarra

Hona hemen " Aur Euskaldunaren eguna"z gain beste ospakizunak, 1930eko irailiko " El Dia"k dioenez:

7'etan.- *Lekuona'tar Manuel'en itzaldia. Gaia: "Euskal Oleriti erritarra"*.

10'etan.- *"Euskal- Pizkundeari Emakumeen Maite-agurra", Donostia'ko "Victoria Eugenia"n egin bezalatsu.*

Irailak 7, *Euskal Eguna:*

10'etan.- *Meza Nagusia.*

11 1/2'etan.- *Eleizalde'tar Koldobika zanaren oroitarri agertzea (Goenkalen).*

Ordu 1'ean.- *Oturuntza aundia. (Amaya jatetxean).*

3 1/2'etan.- *Elebitza (bilingüismo)-aren aldeko batzarra. Bi izlari, bi euskeldun ta erdelduna bestea.*

4 1/2'etan.- *Euskal-dantza berezienen agerketa. Ezteitaldeak. Irrintzilariak. Albokariak. Erromeria, ler egin arte.*

10'etan.- *Donostia'ko "saski Naski"*.

"A las diez de la noche se ha celebrado en el frontón, primorosamente decorado, el acto de Homenaje de la mujer al Euskera. (...) Primeramente la señorita María de Etxabe desarrolló en vascuence una interesantísima conferencia, que mereció grandes aplausos...

La declaración de poesías euskéricas a cargo de la señorita Miren Aranzazu Barrena estuvo a la altura del alto prestigio alcanzado por esta notable recitadora..."

Gero, "El número de Mayas", Tolosako Banda, "Lañu eta Izar" leienda, e.a. ikusi ahal izan ziren.

"El acto resultó grandioso y emotivo. Todo el público puesto en pie entonó a la terminación en medio de la mayor solemnidad y respeto el Gernikako-Arbola. La fiesta del homenaje al Euskera ha sido organizada en Vergara por el entusiasta euskaltxale don Telesforo de Monzón, que recibió toda clase de felicitaciones por la bella presentación de los cuadros".

J.M. Elexpuru

AGOITZ

TAPIZDENDA

San Lorenzo 25 Tfnoa: 76 11 58
BERGARA

ZUNBELTZ

Kafetegia

Simon Arrieta Enparantza
BERGARA

J.M. Irizar Leanizbarrutia

Estomatologoa

Hagin-klinika

Matxiategi 18, Behea Ezk. Tfnoa: 76 56 57 BERGARA



Jatetxea

AURREZ ESKATUTAKO
BAZKARI ETA AFARIAK

Angiozar Tfnoa: 76 21 21

MUGIKA

Harategia

Irala 5, Tfnoa: 76 13 00

Hamasei partidu faltan, eta

Bergara Futbol Taldea kili-kolo

Preferente mailako liga bukatzeko hamasei partidu falta diren une honetan, ezin ukatu Bergara Futbol Taldeak egoera kezkarria bizi duela.

Gure ekipoa sailkapeneko 19. postuan aurkitzen dugu, hamalau puntu eta hamar negatiboz. Antigu taldea dago bakarrik bere atzetik, hiru puntutara hain zuzen ere.

Aurretik doazenak, ordea, nolabaiteko zulotxo ireki dute, eta 18. postuan dagoen Donibanek, adibidez, hamazazpi puntu eskuratu ditu dagoeneko, bergararrek baino hiru gehiago.

Lau garaipen soilik

22. ihardunaldia jokatu eta gero (joan den asteburukoa bertanbehera gelditu

zen arbitroen greba zela eta), Bergarak lau garaipen eskuratu ditu soilik: Eskoriatza, Unibertsitatea, Ordizia eta Antiguoren kontra Agorrosinen jokatutako neurketetan gertatu zen hori.

Berdinu, berriz, sei partidu berdindu ditu, beste hamabi galdu diren bitartean.

Gure jokalariek 21 gol lortu dituzte, eta 33 sareetan jaso.

Entrenatzaile berria

Joan den urtearen bukeran Zuzendaritzak entrenatzaile aldaketa erabaki zuen. Juan Luis Arregi elgoibarrak Jesus Mari Larrañaga eta Fernando Juaristik osatutako bikotea ordezkatu zuen. Neurriak, ordea, ez dirudi gauzak hobetu dituenik. Zazpi partidu jokatu dira ordutik, eta bakarra irabazi.



Bidea zuzentzeko aukera

Pesimistek hamaika arrazoi dituzte Futbol Taldearen lana kritikatzeko.

Optimistek, ordea, oraindik ere 32 puntu jokatu behar direla gogoratzen dute.

Eta hala da, bai; asko dira 32 puntu. Baina gure mutilak lehen bait lehen hasi beharko lirateke horiek eskuratzen, gero berandu izan daitekeelako. Gogoratu besterik ez

Preferenteko azken hiru taldeak jeitsi egingo direla, laugarrena mailari eusteko promozioan murgilduko den bitartean. Ihes egitea lortuko ote dugu?

I. San Blas Mendiko Bizikleta Txapelketa

Igande eguerdian jokatu zen San Blas auzoan I.

Mendiko Bizikleta Txapelketa.

Eguraldi eskaxa egiten zuela kontutan hartuz, eta herriko jendearentzat antolatu zenez bakarrik, ontzat eman behar hogeitamar lagunek proba korritzera animatzea.

Adinen arabera, hiru kategoria banatu ziren. Eta irabazleak, hain zuzen, honako hauek izan genituen: 14

urtetik beherakoetan Ander Markiegi, 14tik 18ra bitartekoan Aritz Linazisoro, eta 18tik gorakoetan, berriz, Joseba Arietaleanizbeaskoetxeak lortu zuen garaipena.



IGERILEKUKO

TABERNA

EGUNEKO MENUA
AURREZ ESKATUTAKO
AFARIAK

Tfnoa: 76 53 55



Raixabal
Gozotegia

ARTEKALE 9, Tfnoa: 76 11 83

BIDEKURUTZETA 20/22, Tfnoa: 76 12 19



Beste musika-mota batzuk badute indarririk asko Bergaran, baina txistuaren kasuan izan zuen garai batean gau egunean baino zaletu gehiagorik. Horren froga argazki honek ematen digu. Donostiako Grosseko frontoi zaharrean 1950ean jokatu zen txistulari txapelketakoa da.

Laukoteen txapelketa zen eta bergararrak izan ziren irabazle, legazpiarren ondoren. Argazkian daudenak hauek dira ezkerretik eskumara: Bonifazio Laskurain, Joseba Laborda, Julian Etxaniz eta Matias Azkarate. Azken honen alboan dagoena "Pello kirten" famatua da, donostiarrek behar beste atril jarri ez zutelako papelei eusten dagoena.

Estepan Plazaola

Argazkia: Julian Etxaniz.



Gaspar
JATETXEA, TXOKOLATEGIA
SELF SERVICE-a
Barrenkale 31, Tfnoa: 76 20 02

Oharra:

Orrialde honetan
iragarkiak ez dira
ordaintzen.

**ETXEBIZITZA**

- Pisu ederra salgai Irizar pasealekuan. Deitu 761708 Tfnoa.
- Pisua salgai edo alokairuan. Polita eta amueblatua. Deitu 762916 Tfno.ra, 21etatik aurrera
- Amueblatutako pisu bat alkilatzen da denboraldi baterako. Tfnoa: 861555, edo 862301.
- Pisua behar dut alki-lerrean. Tfnoa: 764255.
- Gela independente bat alokatzen da. 762112.
- Etxe handia erosi edo alokatu nahi dugu. Markea bada, hobeto. 764507.
- Baserria salgai Berga-

ratik 3 km.ra. 770081, 10etatik letara eta 6etatik 8etara.

- Pisua salgai Koldo Elizalden. Tfnoa: 765823
- Lokal komertziala alkilatzen da bolun. Tfnoa: 763797.
- Pisua salgai Olan, konpondua eta amueblatua. Modu onean. 761669.
- Soto eta garajeak salgai Martokuan. Tamainu ezberdinetakoak. 761078.
- Andereño batek pisu amueblatua behar du urte guztirako. Erdikaldean badago, hobe. Deitu gauez 760371 Tfno.ra.

LANA

- 16 urteko neska euskaldunak umeak zainduko lituzke 3retatik 9ak arte. Tfnoa: 764061.
- Emakume euskalduna behar da, goizetan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 763157.
- Emakume bat eskaintzen da lanerako. 765403.

DENETARIK

- Alemaneko klase partikularrak. 765697.
- *Pastor Alemana* galdu zaigu. 6-7 hilabetekoa, ez dauka koilarrik. Aurkitzen baduzu, deitu 764632ra.

- Pintura klaseak. Tfnoa: 764014 edo 763493
- Ikasi josten zure astaldietan. 762858
- 20,50 m2ko garajea alkilatzen da Burdifatzen. Egin berria. 764003
- 55 m2ko lokala alkilatzen da. 765859, gaueko 9etatik aurrera.
- IPUIN dendaren albo lokala alokatzen da. Galdetu Ipuin-en.

SALDU-EROSI

- Karrerako bizikleta ia berria salgai. Kuadroa Mercier, pieza gehienak Zeus. Precio ona. 763269

Hildakoak

Jesusa Irala Idigoras
Otsailaren 8an. 79urte

Justina Bengoa Barrena
Otsailaren 10ean. 84 urte

Pedro Garitano Makazaga
Otsailaren 13an. 66 urte

BERRIGARA

Eskatu eta etxean



76 03 97

A. ZANGITU

Paper pintatuak-pinturak

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

ayastury

JANTZIDENDA

BARRENKALE, 30
Tfnoa: 76 22 68
BERGARA

Kiñu

MÁRTXOTIK AURRERA BARRENKALE 35EAN



Pia eta Fabio Betaurrekoak:
2.550 pta. bakarrik

Modazko betaurreko berri, oso polit eta guztiz erakargarriak nahi badituzu, hona hemen Pia eta Fabio ereduak:

2550 pta. soilik.

MultiOpticas-ko betaurreko hauek J. Larrañaga Optika bakarrik aurkituko dituzu.

Beste inork ere ez ditu.



J. Larrañaga
 OPTIKA

MULTIOPTICAS

San Pedro, 22 - BERGARA
 Juan Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
 J. M. Barandiaran Enparantza - ORDIZIA

Guztiz erakargarriak